

SSIFF 

**Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival**

Donostia Zinemaldiaren Ingurumenari buruzko diagnosia 2021



#69SSIFF

sansebastianfestival.com

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Babele Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor



Media Partner

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators





SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor



Media Partner



Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



Aurkibide

Sarrera	04	Ondorioak	41
Metodologia	07	Diagnosiaren laburpena	42
Sarrera	08	Mugikortasuna	44
Karbono-aztarna	09	Erosketak	45
Inkestak	09	Energia	46
Jardunaldia langileekin	10	Hondakinak	47
Jarraipen-bilerak	10	Konpromisoa	48
Azterketaren egitura	11	Laburpena	50
Aztertutako arloak	12		
Aztertutako arloak	13		
Emaitzak	15		
Sarrera	16		
Lan-eremuak	17		
Emaitza orokorrak	18		
Ingurumen-inpaktua	19		
Mugikortasuna	20		
Kontratazioa	24		
Energia	28		
Hondakinak	32		
Konpromisoa	36		
Diagnosiaren laburpena	39		



Sarrera

Donostia Zinemaldiak bere ingurumen diagnostikoa aurkeztu du. Txosten honen bitartez, Zinemaldiak bederatzi eguneko Ekitaldiaren ondoriozko karbono-aztarna murrizteko neurriak hartzen jarraitzeko konpromiso irmoa duela berretsi du, bai eta Erakundeak urteko gainerako urteetan izandako jarduerari dagokionez ere.

Nazioarteko topaketek eragin ekonomiko eta soziokultural positiboa izan ohi dute egiten diren hirietan, eta Zinemaldia ez da salbuespena, baina, halaber, ingurumen-inpaktu nabarmena ere eragin ohi dute, batez ere, mugikortasunaren eta parte-hartzaile askoren presentziaren ondorioz: Zinemaldiak 178.000 ikusle eta 4.300 pertsona akreditaziodun hartzen ditu.

Diagnostikoa egiteko, karbono-aztarna neurtu da, eremu guztietako informazio zehatua oinarrituta. Gainera, inkestak egin zaizkie Zinemaldiarekin lotutako eragile guztiei, eta prestakuntza- eta trebakuntza-jardunaldi bat egin da langileekin, jarraipen-bilerez gainera.

ZINEMALDIAREN INPAKTUA BEDERATZI EGUNEKO EKITALDI GISA

Ikerlanean zehaztu denez, Zinemaldiak eragin handia du ingurumenean (0,13 tona CO2 bertaratutako pertsona bakoitzeko), baina, proportzioan, antzeko beste ekitaldi batzuek baino txikiagoa.

Ingurumen-inpaktu nagusia **mugikortasunak** eragiten du; beste modu batean esanda, mugikortasunak emisioen %75 eragiten du, gehienbat, mundu osoko pertsona akreditaziodunek egindako nazioarteko bidaien ondorioz. Kanpo-faktorea izanik, Zinemaldiaren antolakuntzak ez du horretan jarduteko gaitasun handirik, eta, horrenbestez, ikerlanak bideragarriagozat jotzen du emisioak konpentsatzeko bidea aktibatzea. Horren inguruko proposamenak aztertzen dituen bitartean, Zinemaldiak bere ibilgailu-flotan auto elektrikoaren erabilera sustatzen jarraituko du: gaur egun, Audik guztira 30 auto elektriko jartzen ditu Zinemaldiaren esku, gonbidatuak lekualdatzeko.

Zinemaldiak dirauen bederatzi egunetan, 4.852 kilogramo **hondakin** sortzen dira (papera, kartoia eta *gainerakoak* frakzioa, batez ere); horien %9 berrerabili egiten da, eta %76, berriz, birziklatu. Hondakinen atala, mugikortasunarekin batera, aurre egin beharreko ingurumen-erronka handiena da, eta, besteak beste, behin bakarrik erabiltzeko produktuak ezabatzea, material berrerabilgarriak lehenestea, gaikako bilketa eta bertaratutako pertsonak sentsibilizatzea eskatzen du. Esate baterako, material birziklatuekin egindako moketa eman zion Zinemaldiari Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten Kurasaaleko eta Victoria Eugenia Antzokiko alfonbra gorri gisa erabiltzeko, eta Zinemaldia amaitu ondoren, alfonbra horiek birziklatu egin ziren, arropak sortzeko edo beste erabilera batzuk emateko. Orobat, Zinemaldiak ematen dituen 10.500 akreditazioak biodegradagarriak dira, lehiaketaren egoitzetan gaikako bereizketa eta birziklapena sustatzen jarraitu da, eta behin bakarrik erabiltzeko edalontziak eta dendatik plastikozko poltsak kendu dira; izan ere, dendan, ehun-produktuen *merchandisinga* (kamisetak, poltsak, etab.) %100 organikoa izanda. Gainera, Gazteriaren Epaimahaiaren Sarirako eta Donostia Hiria Publikoaren Sarirako, bozketa digitalaren sistema baliatuta boto inprimatuaren orde. Argitalpenei dagokienez, Zinemaldiak inprimaturiko argitalpen batzuk kentzearen edo ale gutxiago inprimatzearen alde egin du, eta, horrez gain, bertsio digitalen erabilera eta kontsulta bultzatuko du.



Kontratazioen bolumenak ere inpaktu handia du hainbat arazo direla-eta, hala nola, azpiegiturak, itzulpenak eta argiztapen- eta soinu-teknikariak. Zinemaldiaren aurrekontuaren %90 iraileko bederatzi egunetan kontsumitzen da, eta, ahal duen neurrian, lehiaketa dagoeneko hasi da aldagai *berdea* sartzen kontratazio batzuetan; hala, osasun-egoerak jaiak eta ekitaldiak egitea ahalbidetzen duen bezain laster, zero kilometroko *catering*a eta ontzi birziklagarriak lehenetsiko dira lehen neurri gisa.

Emanaldietan erabilitako **energiak**, aretoen klimatizazioak eta ostatuaren gastuak eragindako inpaktuari dagokionez, kontsumo handiena hirugarrenek egiten dute, hau da, ekitaldia ospatzeko alokatutako gune eta hoteletan gertatzen da, eta horrek murriztu egiten du emisioen zifretan eragiteko gaitasuna. Alabaina, Zinemaldiak dagoeneko hasi du argiztapen halogenotik LED teknologiarako trantsizioa ekitaldiaren kanpoaldean gauzatzen dituen instalazio gehienetan. Aurtengo edizioan, Zinemaldiko kanpoko argiztapen guztiaren %80 LED lanparen bidez egin zen, eta horrek %75eko energia-aurrezpena ekarri du.

Ikerketaren arabera, **konpromisoari** buruzko atalean oraindik badago zer hobetu erabilera bakarreko produktuetan, *merchandising*ean eta dekorazioan, halakoak ez baitira birziklatu, ez baitira birziklagarriak. Gainera, ez da mugikortasun-alternatiba iraunkorrik edo hondakinen kudeaketa zehatzagorik lehenetsi, baina Zinemaldiak badaki ingurumen-aldagaia txertatu behar duela bere jardueran, eta jarrera ereduagarria hartu behar du, gainera, arlo horretan, nazioarteko topaketa izaki. Ildo horretan, sektorea arazo horren inguruan kontzientziatzeko balio duten programa publikoak egitea ere sustatuko du. Edizio honetan, esaterako, zinema-banaketari buruzko mahai-inguru bat antolatu da, bai eta banaketa hori jasangarriagoa izan dadin geure gain hartu behar ditugun erroñei buruzkoa ere. Gainera, urteak daramatza Greenpace erakundeak Lurra Saria ematen Zinemaldiko filmen artean bakearen eta ingurumenaren defentsaren balioak hobekien islatzen dituenari.

ZINEMALDIAK ERAKUNDE GISA URTE OSOAN IZAN DUEN ERAGINA

Zinemaldiaren ingurumen-diagnostikoa ez da mugatzen urteko edizioa egiten den iraileko bederatzi egunetara, erakundeak eta haren berrogeita hamar langilek gainerako hilabeteetan duten inpaktua ere aztertzen baitu. Kasu horretan, Erakundeak urte osoan zehar duen aztarnari dagokionez (5,7 tona CO2 pertsona bakoitzeko) oso txikia da Ekitaldiarenarekin alderatuta.

Nolanahi ere, inpaktu handiena **mugikortasunak** ere eragiten du, kasu honetan, lan-bidaiek. Hori dela-eta, Zinemaldiak konpromisoa hartzen du konpentsazio-neurriak aztertzeko eta, bitartean, ahal duen neurrian, lehentasuna ematen jarraitzeko trenezko joan-etorri eta furgonetaz partekatutako bidaiari hegaldien ordeztu (Cannesko zinema-jaialdirako bidaiari eta filmen hautaketarekin lotutako beste joan-etorri batzuen kasuan egiten den bezala). Ikerlanaren arabera, Zinemaldiko langileen mugikortasun *in itinere* hori ereduagarria da, langileen %76k oinez, bizikletaz, autobusez edo trenez joatea erabakitzen baitu.

Urteko gainerako denboraldietako **kontratazioek** (itzulpenak, webgunearen mantentze-lanak, etab.) ere inpaktu esanguratsua dute, eta **hondakinei** dagokienez, oraindik badago hobetzeko marjina: aurtun, Zinemaldiko bulegoetan paperontzi indibidualak kendu dira, erabilera bakarreko edalontziak eta plastikoak kartoi birziklatuko ontzietan eta material jasangarriekin ordeztu dira, eta birziklatzeko estazioak instalatu dira, hondakinen %90 baino gehiago birziklatzeko, inprimagailuen erabilera optimizatzeko konpromisoa hartzeaz gain, paper-kontsumo altua ikusirik. Bulegoetako **energiari** dagokionez, %100 berriztagarria da jada, eta inpaktua txikia da. Azkenik, aurtengo ekainean bezala, Donostiako Udalak sustatzen duen plastikorik gabeko hilabetea babesten jarraituko du Zinemaldiak.

Donostia Zinemaldiak ondo daki plataforma gisa erantzukizun handia duela eta ondo kokatuta dagoela, klimaren eta jasangarritasunaren inguruko kontzientziarioari eta konpromisoari buruzko mezua helarazteari dagokionez, gaur egun inoiz baino larriagoak diren arazoak izanik. Hurrengo edizioetan, lehiaketak bere emisioak neurtzen jarraituko du ikerlan berrien bidez, eta, aldi berean, kategoria guztietan ingurumen-inpaktua murrizteko eta nazioarteko helburuekin eta naturaren zaintzaren borrokarekin bat egiteko jarduketak sustatzen jarraituko du kategoria guzti-guztietan.



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Metodologia



Metodologia

Zinemaldiak barnean hartzen dituen dimentsio guztietan jasagarritasunaren ikuspegi oso batetik sakontzeko aukera izan dugu lan honi esker, hori ikuspegi holistiko batetik ulertuta. Horrek guztiak aukera eman digu gai batzuk erlatibizatzeko eta beste batzuk nabarmentzeko, baina erronka zein den ahaztu gabe: **ingurumen-inpaktua murriztea, hala Erakundearen egunerokoan, nola Ekitaldiaren egunetan, eta, bakoitzak dagokion eskalan,** helburu egingarriak ezarri behar direla ingurumen-inpaktuak eta emisio-tasak karbono-neutraltasunetik eta nazioarteko konpromisoetatik hurbil dauden kantitateetarantz eraman ahal izateko.

Sarrera

Zinemaldiaren ingurumen-diagnosia egiteko erabilitako metodologiak honako hauek hartu ditu barnean:

- a) **Karbono-aztarna** aztertu dugu (informazio zehatza jasotzen duten datu-baseak erabili ditugu aztertutako arlo bakoitzeko).
- b) **Inkesta** bana egin diegu Ekitaldiaren bederatzai egunetan egitura osatzen duten eragileei.
- c) Langileen galdetu diegu ea zer pentsatzen duten jasagarritasunaren alderdiei buruz, eta inkesten bidez zein **prestakuntza- eta gaikuntza-jardunaldi** baten bidez bildu dugu haien iritzia.
- d) Informazio kualitatiboena **jarraipen-bileretan** lortu dugu. Informazio horrek balio izan du Ekitaldiaren antolaketaren barneko errealitateak, sailak, bidaiak, materialak eta haien motibazioak eta anbizioak berak ulertzeko.



Metodologia

Karbono-aztarna

Karbono-aztarna ingurumen-adierazle bat da, eta gizabanako, erakunde, enpresa, ekitaldi, produktu edo zerbitzu batek zuzenean edo zeharka isurtzen dituen berotegi-efektuko gas (BEG) guztiak islatu nahi ditu. Adierazle hori CO₂ baliokideko masan neurtzen da, eta Kyotoko Protokoloan jasotako berotegi-efektuko sei gas hartzen ditu barnean.

Karbono-aztarna ezagutzea garrantzitsua da ziurtasun handiagoz jakin dezagun gure ekintzei lotutako BEGek berotze globalari eta klima-aldaketari zer ekarpen egiten dieten.

Tamaina eta aztarna jakindakoan, berau murriztu eta/edo konpentsatzeko estrategia bat abiaraz daiteke.

Aztarna kalkulatzeko metodologiak emisio-faktoreak erabiltzea du oinarritzat. Faktore horiek CO₂ baliokideren emisio bihurtzen dute jarduera bakoitza. Era horretan jarduerak eskala beraren bitartez alderatu, ulertu eta aztertu ahal ditugu.

Hori osatzeko, honako hauei dagokienez zehaztu dugu irismena: Ekitaldian zenbatek parte hartu duten, aurrekontu osoa, urte osoan zenbat langile dauden (aztarna korporatiboa kalkulatzeko) eta jarduerak eta/edo bisitariak hartzen dituzten eraikinak eta ostatuak, besteak beste.

Hori guztia **karbono-aztarnari buruzko txosten**ean jasoko da; txosten hori jarraipena egiteko adierazle gisa erabiliko da, bai eta karbono-aztarnen irudia arloka erakusteko.

Inkestak

Inkestak egin dira, euskaraz eta gaztelaniaz, Zinemaldiaren Erakundearen irismenetik kanpo dauden alderdiak ezagutzeko.

Zinemaldiaren ingurumen arloko jardueraren gako batzuk xehetasun handiagoz ezagutu ahal izan ditugu inkesta horiei esker, hala nola kontratatutako produktu eta zerbitzu motak eta eraikin eta ostatuetakoa kontsumoak (ura, energia termikoa eta energia elektrikoa), haien azalera eta/edo Ekitaldiaren egunetan ostatu hartutakoak aintzat hartuta.

Gainera, bestelako alderdiak ere ezagutu ditugu: ziurtagiri energetikoak zer eraikinek dituzten eta ingurumen-ziurtagiriak zer enpresak dituzten. Zinemaldia egindako egunetako barneko langileekin harremanetan jarri gara, halaber, nola mugitzen diren jakiteko.

Balio handiko informazioa jaso dugu lan horren bidez, baina **oinarri metodologiko bat finkatzeko** ere balio izan du, heldu diren edizioetan **informazioa nola bildu** argi izateko; Zinemaldia egiteko orduan ditugun **eragile eta aliatuekin berriz harremanetan egoteko** balio izan du, halaber.



Metodologia

Jardunaldia langileekin

Langileen prestakuntza- eta gaikuntza-jardunaldi bat egin dugu, orobat. Jardunaldi horretan, besteak beste, honako hauek izan dira: jasangarritasunari buruzko hamar kontzeptu erabakigarrienen hastapenak; ohitura jasangarriei buruzko dinamikak; zinema eta kulturaren arloko nazioarteko beste ekitaldi batzuen jarrerari begiratzea, eta proiektuak barnean sortutako anbizioari buruzko pertzepzioa biltzea, bai eta abian jarri beharreko jarduera garrantzitsuenei buruz langileek emandako erantzunak ere; erantzun horiei buruzko gogoeta taldean egin dugu, hiru oinarri hauen arabera: **inpaktua, garrantzia, bideragarritasuna.**

Jardunaldi horretan **jasangarritasunaren barneko pertzepzioari buruzko irakaspen garrantzitsuak** lortu ditugu, haren ezagutza-maila, jasangarritasunari zer garrantzi-maila ematen zaion eta klimaren arloko anbizioa aintzat hartuta, eta lehen ekintza sorta batean islatu da hori guztia. Elementu horiek aberastu egiten dute Erakundearen ingurumen-diagnosia, Erakunde barruan ingurumen-arazoei buruz zer konpromiso-maila dagoen azaleratzea lortu baita.

Jarraipen-bilerak

Aldian behin, bilerak egin ditugu azterlanaren **aurrerapenak**, informazio-**beharrak** eta **eskakizun** teknikoak ezagutzeko.

Bilera horietatik beste irakaspen batzuk ere lortu dira, gainera, eta horiei esker, Zinemaldiaren egitura –Erakunde gisa– ezagutzeko aukera egon da, bai eta urtean zehar paraleloan egiten diren Ekitaldiak eta hornitzaileei buruzko xehetasunak ere. Horrela, Erakundearen errealitatearen bilakaerari buruzko informazioa lortu dugu, gehitzen joan diren aurrerapen teknologikoak eta antzemandako arazo berriak, adibidez.

Ekitaldiaren zokoetara eta barneko kudeaketaren askotariko aldagaietara hurbilduta, gainera, aukera izan dugu **ikuspegi holistikoago bat** eskuratzeko, bai eta Ekitaldiaren bederatzi egunetan gertatzen den guztiaren gaineko **errealitatera gehiago hurbiltzen den ikuspegi bat**. Bederatzi egun horiek ia urtebeteko prestaketa behar dute.



Metodologia

Azterketa-arloak karbono-aztarnaren arloei jarraikiz zehaztu dira. Gainera, Zinemaldiaren balioei eta barneko kulturari buruzko kategoria bat gehitu da; osagai kualitatiboagoa du, baina besteak bezain garrantzitsua da.

Hauek dira kategoriak:

Mugikortasuna

Kontratazioa eta erosketak

Energia (eraikinak eta ostatuak barne hartuta)

Hondakinak

Konpromisoa

Azterketaren egitura

Datuak biltzeko eta aztertzeko prozesua ballagarria izan da ingurumen-inpaktuen jatorria eta inpaktu horiek zerk sortzen dituen ezagutzeko. Karbono-aztarnaren metodologiak zehazten ditu, neurri handi batean, aztertutako kategoriak edo arloak.

Hori horrela, **emaitza orokorrak eta bost kategoria horiek aztertuko ditugu** heldu diren kapituluetan, hala Ekitaldiaren beraren ikuspegitik, nola Erakundearen alderditik. Diagnosian aztertutako arloei dagozkie kategoria horiek, eta **karbono-aztarnaren ikuspegitik neurtutako ingurumen-inpaktu handiaren arabera daude antolatuta.**

Zehaztu behar dugu, halere, konpromisoaren kategoriak ez duela berez ingurumen-aztarnarik, baina ingurumenean inpaktu handia duela uste da; izan ere, azken batean, kategoria horrek zuzentzen ditu Zinemaldian egiten diren jarduera guztiak, eta horrexek markatzen du, orobat, ekar dezakeen nazioarteko proiektzioa eta jarrera eredugarria eta/edo sentsibilizazioa ere.

Azterketan beste emaitza batzuk jasota daude, jarduera bakoitzak **sortutako emisioen kantitatetik harago**, pentsatzekoa baita karbono-aztarnak ez dituela barnean hartzen ingurumenaren osagai guztiak; era horretan ikuspegi zabalagoa eman nahi izan diogu ingurumen-diagnosiari.

Karbono-aztarnaren arloei jarraikiz zehaztu dira azterketa-arloak, eta Zinemaldiaren balioei eta barneko kulturari buruzko kategoria bat gehitu da; osagai kualitatiboagoa du horrek, baina besteak bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da. Kategoria hauek aztertu dira: Mugikortasuna, erosketak, energia (eraikinak eta ostatuak barne hartuta), hondakinak eta konpromisoa.

Azkenik, arlo horietako bakoitza aztertu da hiru alderdi komun hauek aintzat hartuta: sortutako inpaktua, jarduteko ahalmena eta arloak Zinemaldiarako zer garrantzi duen. Horiek guztiak 1etik 5era arteko eskala batean aztertu dira.



Metodologia

Azterketaren egitura

Aztertutako arloak

Orokorra

Lehen azterketak ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik heltzen die Zinemaldiaren alderdi nabarmenenei, eta saiatzen da Ekitaldiaren muntaren arabera ikuspegia edukitzen, karbono-aztarnatik haragoko beste alderdi batzuk aintzat hartuta.

Mugikortasuna

Hainbat alderdi aztertzen dira mugikortasunaren barruan, hala nola langileen in itinere mugikortasuna, laneko bidaiak, Ekitaldiak erakarritako bidaiak (akreditatuentzat zein ikusleentzat oro har) eta barneko mugikortasuna Ekitaldiaren bederatzi egunetan.

Kontratazioa

Kontratazioek urtean eskuratutako materialak, produktuak eta zerbitzuak hartzen dituzte barnean, batez ere bulego-gaien kontsumoei dagokienez, bai eta Ekitaldiaren egunetarako kontratatutako zerbitzuak; urteko aurrekontuaren % 90 dagokie horiei, eta askotarikoagoak dira.

Energia

Energiaren barruan ostaturen energia-kontsumoak sartzen dira, hala langileenak –urtean zehar–, nola akreditatuenak, Ekitaldiaren egunetan, baita bulegoaren eraikinen eta zinema-aretoen kontsumoa, eta Ekitaldia egiten denean dauden beste batzuenak.

Hondakinak

Hondakinen atalean motaren arabera sortutako kopurua hartzen da kontuan, bai Erakundeari bai Ekitaldiari dagokienez; bai eta, horrekin batera, ondorengo tratamendua ere, hondakin motaren arabera, haien kudeaketa nola hobetu aztertzeke.

Konpromisoa

Konpromisoak balio immaterialenak irudikatu nahi ditu, hala langileen jarrerari dagokionez eta eguneroko jarduerari lotutako erabakiak hartzeko orduan, nola ingurumenaren garrantzia harago helarazteko barnean sortutako jarduerari dagokienez.



Metodologia

Azterketaren egitura

Aztertutako arloak

Arloak bakoitza hiru alderdi hauetan aztertu da: inpaktuak, ekiteko ahalmena eta arlo bakoitzaren garrantzia. Era horretan azterketa uler dadin erraztu nahi izan dugu; azterketa horretan jasangarritasunaren ikuspegi osoa lehenetsi da, orobat. Azterketa-aldagai horiek metodologia komun bat definitu nahi dute, arlo bakoitzaren gakoak azaleratu eta landu beharreko arlo nagusiak zein diren zehaztearekin batera.

- **Inpaktua:** batez ere karbono-aztarnaren emaitzetan oinarrituta dago; arlo bakoitzean egiten da. Balioespen kualitatibo bat eransten da, gainera, karbono-emisio erlatiboetan islatzen ez diren inpaktuak gehitzeko.
- **Ekiteko Ahalmena:** aztertutako arloetan eragiteko zailtasuna islatzen du; hau da, beste batzuen gainean jarduteko mugak, eta ahalmen handiagoa, berriz, arloa barneko Erakundearen beraren barruan dagoenean.
- **Garrantzia:** arloaren garrantzi-maila erakusten du, arloak Zinemaldia bezalako Ekitaldi eta Erakunde baterako zer garrantzi duen kontuan hartuta.

Hiru azterketa-aldagai horien ebaluazioa **armiarma-diagramen** bidez adierazten da, eta **1etik 5erako eskala batean, non 1 mailarik baxuena den, eta 5, altuena.** Inpaktuari dagokionez, ahalik eta ingurumen-inpakturik txikiena edukitzea izango da helburua. Ekiteko ahalmenaren eta garrantziaren aldagaietan, berriz, mailarik altuenak lortzea izango da helburua. Eskala honako hauetan oinarritzen da: karbono-aztarnaren emaitzak, abian jarritako jarduketek zer harrera izan duten, eta teknikariek jasangarritasunaren arloan egindako kabinete-lana. Eta orientatzea du xede.



Ebaluazio-diagramen adibideak.



SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Emaitzak



Emaitzak

Aztertutako arlo guztien aldagaiak aletzen ditu azterketak, hala Ekitaldiari nola Erakundeari dagokionez, alderdi guztien baterako irudia eskaintzeko, lortutako emaitzen arabera mailakatuta.

Sarrera


Egindako diagnosiaren emaitzak batera hartuta aztertu dira, eta zehaztu egin dira, orobat, Zinemaldiaren Ekitaldiaren berezko jarduerak eta Erakundeak urte osoan egindakoak. Atala honela egituratzen da:

1. **LAN-EREMUAK.** Azterketan erabili diren Zinemaldiaren Ekitaldiaren eta Erakundearen alderdiak eta ezaugarriak zehazten dira.
2. **EMAITZA OROKORRAK.** Zinemaldiaren ingurumen-inpaktuaren emaitza orokorrak aurkezten dira.
3. **EMAITZAK ARLOAREN ARABERA.** Ingurumen-inpaktua arlo guztietan zehazten da (mugikortasuna, erosketak, energia, hondakinak eta konpromisoa).
 - a) **TESTUINGURUA.** Ebaluatzen den arloaren hastapenak.
 - b) **EKITALDIAREN AZTERKETA.** Ekitaldiak aztertutako arloari dagokionez zer ingurumen-inpaktu duen aztertzea.
 - c) **ERAKUNDEAREN AZTERKETA.** Erakundeak aztertutako arloari dagokionez zer ingurumen-inpaktu duen aztertzea.
 - g) **ONDORIOAK.** Lehentasunaren alderdiak ebaluatzea ondorioztatutako inpaktua eta Zinemaldiak dagoeneko ezarritako ekintzak kontuan hartuta.



Emaitzak


Zinemaldiaren ingurumen-inpaktua aztertzeko orduan, 9 egunetako Ekitaldia eta Erakunde gisa urte osoan egindako jarduera hartu dira kontuan.



Grafikoa. Karbono-aztarnaren banaketa lan-eremuen arabera.

Lan-eremuak

Ekitaldia



Erakundea





Emaizak

Emaiza orokorrak

Zinemaldiak inpaktu handia du karbono-emisioei dagokienez, Donostiako Kontxako badiaren neurriko baso bat beharko bailitzateke igorritako CO₂-a urtero xurgatzeko. Karbono-emisioetan neurtutako ingurumen-inpaktuak erakusten du Zinemaldiaren inguruko jarduera guztiak inpaktu adierazgarri handia sortzen duela. Munta horretako ekitaldi batean mugikortasunak, erabilitako materialek, cateringak, argiztapenak, energia-kontsumoek eta garbiketak, besteak beste, emisio handiak sortzen dituzte. Nabarmentzekoa da, orobat, ikusle asko bertaratzen direnez, karbono-aztarna erlatiboa txikiagoa dela herrialdean egiten diren beste ekitaldietan baino.

Mugikortasuna da emisio-gune nagusia (emisio guztien % 75), eta hori da –eta ondoren hondakinak–, Zinemaldiak gainditu nahi duen ingurumen-erronkarik handiena. Zinemaldia egiteak sortutako mugikortasunak ingurumen-inpaktu handia du; eta gauza bera esan dezakegu Zinemaldiaren bederatzi egunetan sortutako hondakinei dagokienez, zeinek oso askotariko jatorria duten. Hori horrela, hondakinen kudeaketa eta mugikortasun jasangarriaren sustapena dira heldu diren edizioetan lehentasunez landu beharreko bi arloak, besteak beste.

Ingurumen-inpaktua murrizteko lanean ari gara karbono-neutraltasuna lortzeko helburuarekin bat etorrira. Zinemaldiaren barruan, Ingurumen Diagnostika eta Ekintza Plana egiteaz gain, zenbait arlotan (energia, mugikortasuna eta hondakinak, besteak beste) karbono-emisioak murrizteko lanean ari gara, askotariko jardueren bitartez: argi halogenoen ordez LED argiak erabiltzea; bidaiak furgonetan egitea, edo bere instalazioetan sortutako hondakin guztien gaikako bilketaren alde egitea. Nolanahi ere, helburu hori lortuko badugu, aldaketaren alde egiten duten eragileak beharko ditugu inguruan, zenbait faktore aldatu beharra ahaztu gabe, hala nola mundu osoko energiaren eta mugikortasunaren ereduak, baina baita bertako herritarren ohiturak ere, karbono-neutroak izan nahi badugu.

Zinemaldiaren tankerako ekitaldi baten ingurumenaren eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa helaraztea emisioak zuzenean murriztea bera bezain garrantzitsua edo hori baino garrantzitsuagoa izan daiteke. Zinemaldiak plataforma ezin hobea du klima eta jasangarritasunaren aldeko kontzientziario eta konpromisoari buruzko mezu irmoa helarazteko; izan ere, nazioartean entzun daiteke bere ahotsa, eta jasangarritasunaren aldeko eragile ereduagarri bihurtu; emisioak zuzenean murrizteak berak baino oihartzun handiagoa izan dezake ondorioz.

Zinemaldiak ingurumen-inpaktu handia du, Ekitaldiaren nazioarteko irismenak eta haren iraupenak zehaztuta.

Emaitzak

Ingurumen-inpaktua

Zinemaldiaren ingurumen-inpaktua **HANDIA** da, duen garrantziaren neurrikoa

Ingurumenean inpaktu handia duten arloak ez ezik, konpromiso eta ahalmen eredugarri handia dutenak ere hartu behar dira kontuan.

EKITALDIAK OSO inpaktu HANDIA du Erakundearen aldean

- MUGIKORTASUNA da, alde handiz, inpaktu nagusia; akreditatuen garraiobideek markatzen dute.
- KONTRATAZIOEK inpaktu handia dute, orobat, egiten diren kontratuen bolumenak eta kopuruak zehaztuta.
- Sortutako HONDAKINEK bolumen handia dute; errefusaren bolumen handia eta organikoa jasota ez egotea nabarmentzen da.
- ENERGIA kontsumitua nabarmen txikia da, hala hoteletan nola eraikinetan.
- Zinemaldiak jasangarritasunaren arloko neurriak baditu dagoeneko, eta ikusleei begira ingurumenarekin duen KONPROMISOA erakusten du horrek.



ERAKUNDEAK inpaktu OSO TXIKIA du Ekitaldiaren aldean


- Laneko bidaien MUGIKORTASUNAREN ondorioa da inpaktu handiena.
- EROSKETEK ETA KONTRATUEK inpaktu nabarmena dute.
- PAPER-KONTSUMOA handia da, eta hobetzeko tarte dago hondakinen gaikako bilketan.
- ENERGIAK emaitza onak erakusten ditu, elektrizitatea iturri berriztagarrietatik etorruta.
- Erakundearen langileak ohitura jasangarriagoak hartzen hasi dira, KONPROMISO PERTSONALAREN ETA HOBETZEKO GAITASUNAREN adierazle.



Emaitzak

Mugikortasuna

Mugikortasuna da Zinemaldian sortzen den ingurumen-inpaktuaren erantzule nagusia.



Grafikoa. Mugikortasunaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.

Testuingurua

Mugikortasuna da gaur egun **Europa, EAE edo Gipuzkoako sektorerik kutsagarriena**, horrez gain, erregai fosilen mende baitago; ibilgailu pribatua distantzia ertainetan erabiltzeko kulturak eta distantzia luzeetan, berriz, hegazkinez bidaiatzeak kontsumo-eredu oso jasangaitzera daramate. Normala da, hortaz, emaitza horiek egotea, eta, egia esateko, arazo honek konponbide zaila du.

Joan-etorrietan **erosotasuna lehenesten dute** maiz; elementu hori landu liteke aztarna gutxitzeko. **Ibilgailu partekatu eta/edo elektrikoak, berriz, gero eta alternatiba bideragarriagoak dira**, eta laguntza gisa erabil daitezke garraio publikoa nabarmen lehenetsita.

Ekitaldiaren egunetan herritar ugari etortzen dira hirira; erakarritako mugikortasuna neurtzea zaila bada ere, itxura guztiaren arabera, hala akreditatuek nola, oro har, ikusleek ez dituzte mugitzeko ohitura jasangarriak, kontrakoa baizik.

Erakundearen lan-mugikortasunaren kasuan bezala, mugikortasunean eragiteak –oraingoan Erakundetik kanpoko jendearenean– muga dezente ditu, eta, printzipioz, erakarritako mugikortasunaren arloan jarritako helburuek nolabaiteko mugak izango lituzkete.

Egindako ekintzak


- Langileen % 75 bizikletaz, oinez edo garraiobide publikoetan etortzen dira lanera.
- Furgonetaz eta auto partekatuetan bidaiatzea lehenesten da hegazkinez bidaiatzearen aldean.
- Auto elektrikoak eskaintzen dira Ekitaldia egin bitartean gonbidatuak mugi daitezen.
- Erdietara baino gehiagotara murriztu dira aireportutik eta aireportura egindako bidaiak.



Emaitzak

Mugikortasuna

Ekitaldiak erakarritako mugikortasunaren emisioak gutxitzeak irtenbide zaila du, Zinemaldiak nazioarteko irismena baitu. Bideragarriagoa da, horrenbestez, emisioak konpentsatzeko bidea abian jartzea, ohiturak pixkanaka aldatzea baztertu gabe.



Grafikoa. Ekitaldiaren mugikortasunaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.

Ekitaldia


Nazioarteko gonbidatuak bakarrik mugikortasunari dagozkion karbono-emisioen % 83 sortzen dituzte.

Mugikortasuna arlo kutsagarriena da batez ere nazioarteko gonbidatuak eta haiek lekualdatzeko modua direla eta. **Akreditatuen mugikortasunari dagokionez**, batez ere hegazkina erabiltzen dute, eta, gehienbat, **nazioarteko hegaldi luzeak** dira; distantzia luzeak egiten dituzte, beraz. Ibilbide luzeek biderkatu egiten dute erregai fosilen kontsumoa, eta sortutako emisio-kantitateek ekitaldi baten emisioen banaketa «normala» desitxurutzen dute. Zinemaldiaren berezko ezaugarriak eta nazioarteko proiektioa direla-eta zaila da pertsona akreditatuen mugikortasunaren arloan emisioak gutxituz esku hartzea; lekualdaketak egiten diren modua aldatu ezin denean, halere, emisioak konpentsatzea da alternatiba.


Ez dugu ahaztu behar praktika jakin batzuei emisioak gutxituz ere heldu ahal zaiela.

Ekitaldiak iraun bitartean langileak eta akreditatuak **gehienbat autoz joaten dira** hiriko zenbait tokitan egiten diren ekitaldi eta jardueretara; batzuetan hori praktika jasangarriagoez ordeztu daiteke.

Zenbait neurri hartzen hasi direla nabarmendu behar da, hala nola ibilgailuak elektrifikatzea, auto elektrikoaren zerbitzuak kontratatzea eta langileak ibilgailu partekatuetan mugitzea.



Grafikoa. Akreditatuak garraiatzeko moduen emisioen ehunekoa 2019an.




Grafikoa. 2019an akreditatuek barneko lekualdaketetan eginiko kilometroen ehunekoa garraio bide bakoitzeko.



Emaitzak

Mugikortasuna

Mugikortasunaren emisioak lana dela-eta egindako nazioarteko bidaien ondorioz sortu dira, eta oso bestelakoak dira in itinere joan-etorrien praktika eredugarrien aldean.



Grafikoa. Erakundearen mugikortasunaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren azterna osoan.

Erakundea

Lana dela-eta mugitzeko orduan, hegazkina da hautatutako garraibide nagusia.


Mundu osoko nazioarteko zinema-jaialdietara joateak azaltzen du hori, baina **joan-etorriak garraibide jasangarriagoen bitartez egin daitezkeenean, furgoneta eta/edo auto partekatu bidezko joan-etorriak lehenetsi ohi dira normalean.** Beste elementu garrantzitsu bat helburuko tokietan ibiltzeko modua da; izan ere, aukera jasangarriak hartzen hasi badira ere, egiteko bidea dago oraindik.

Aukera eroso eta ekonomikoak nagusi dira bidaiak planifikatzeko orduan.


Lan-bidaietarako hautatutako garraibidea aldatzen eta **ingurumen-aldagaia gehitzen** saiatzen ari gara, eta gero eta gehiago dira furgoneta partekatu, tren edo autobus bidez egindako bidaiak (% 26), baina, hegazkinez bidaiatzea lehenesten da oraindik, batez ere Europako bidaietan eta estatuko eta nazioartekoetan (% 74).

Horren aldean oso bestelakoa da lanera joateko modua, nabarmen nagusi baitira garraibide jasangarrienak.

Lantokitik eta lantokirako mugikortasun-ohituretan **garraibide jasangarrien nagusitasun argia ikusten da** eguneroko joan-etorrietan. Langileen % 76 inguruk oinez, bizikletaz, autobusez edo trenez joatea erabakitzen dute, eta % 24k, ordea, garraibide kutsagarriagoak erabiltzen dituzte, batez ere distantzia luzeagoak egin behar dituztelako. Nolanahi ere, modu hori hain kutsagarria izanik, inpaktu erlatibo handia duela izan behar dugu gogoan.



Grafikoa. Erakundearen bidaietarako garraibideen erabilera-ehunekoa 2019an.




Grafikoa. In itinere mugikortasunerako garraibideen erabilera-ehunekoa 2019an.



Emaitzak

Mugikortasuna



Arloaren ondorioak

INPAKTUA

Zinemaldiak sortutako mugikortasunak dakar ingurumen-inpakturik handiena, batez ere Ekitaldira doazen akreditatuak, 9 egunetan bertaratutako jendea eta laneko nazioarteko bidaiak direla eta.

- **EKITALDIA [INPAKTUA – HANDIENA]:** Ekitaldiaren egunetan herritar ugari etortzen dira hirira; erakarritako mugikortasuna neurtzea zaila bada ere, itxura guztiaren arabera, hala akreditatuak nola, oro har, ikusleek ez dituzte mugitzeko ohitura jasangarriak, kontrakoa baizik. Nazioarteko gonbidatuak eta haien bidaiatzeko moduek sortzen dute Zinemaldiaren karbono-aztarnaren % 70.
- **ERAKUNDEA [INPAKTUA – ERTAINA]:** Mugikortasunaren aztarna da handiena, halaber; oraingoan urtean zehar egiten diren bidaiak anitzen ondorioz.

JARDUTEKO AHALMENA

Muga asko daude mugikortasunean eragiteko; izan ere, kanpoko faktore bat da, eta Erakundeak ez du jarduteko ahalmen handirik horren gainean.

Aukera bat da hobetzeko neurriak edo garraio jasangarriagoa bultzatzeko pizgarriak ezartzea, eta konpentsatzeko neurriak ere gehitu ahal dira eskuratutako sarreretan. Nolanahi ere, akreditatuen mugikortasunari dagokionez proposatutako helburu eta ekintzek Zinemaldiaren ezaugarri bereziak hartu behar dituzte kontuan anbizio-maila planteatzeko orduan, eta sustatzeko eta sentsibilizatzeko gaietara bideratu behar dira ekintzak.

- **EKITALDIA [EKITEKO A. – ERTAINA/TXIKIA]:** Zinemaldiaren tankerako nazioarteko ekitaldi batek ez du ekiteko ahalmen handirik akreditatuak nola bertaratzen diren aldatzeko (horixe da, hain zuzen ere, emisioen kausa nagusia); horregatik, ekintza gehienak sentsibilizatzeraz eta lekualdatzeko ordezkotzko aukerak sustatzera bideratu behar dira.
- **ERAKUNDEA [EKITEKO A. – ERTAINA]:** Urtean zehar, Erakundeak nazioarteko beste zinema-jaialdi batzuetara bidaiatzen du, eta gehienetan joan beharreko tokiak oso urrutitatuak daude; ezinezkoa da, beraz, horietara trenaz edo auto partekatutaz bidez joatea.

GARRANTZIA – ERTAINA


Erronkak gainditu egiten du beraz kudeatzeko Zinemaldiak duen gaitasuna; halere, arlo hori mahai gainean jarri behar da, ingurumen-inpaktu handiena sortzen duena baita.

Mugikortasunaren sektorea deskarbonizatzen zailenetako bat da; EAEko sektorerik kutsagarriena da dagoeneko, industria eta energiaren sektorea gaindituta. Hala eta guztiz ere, ez dago oraindik mugikortasunari ordezkotzko aukera ekologikoak planteatzeko moduko teknologiarik, eta, emisio askoko sektorea bada ere, pazientzia behar dugu oraindik, harik eta mugikortasun deskarbonizatua ahalbidetzen duen inflexio-puntua gertatzen den arte, baina horregatik arlo horretan aurrera egiteari utzi gabe.

Emaitzak

Kontratazioa

Erosketen eta kontratazioen bolumenaren ondorioz, arlo honek ingurumen-inpaktu handia du.



Grafikoa. Erosketen emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan..

Testuinguruan

Enpresen jarduerak ingurumen-inpaktu bat du egiten dituzten kontsumoei, mugikortasunari eta abarrei lotuta, eta azken kontsumitzaileari helarazten zaio inpaktu hori. Zinemaldiaren alderdi guztiak behar bezala joan daitezzen zerbitzu asko kontratatu eta produktuak eta materialak erosten direnez, handia da inpaktua.

Illo horretatik, hain ekitaldi handia prestatzeak **gastu nabarmena** dakar askotariko gaietan (**azpiegiturak, itzulpenak, argi eta soinuko laguntza teknikoa, katalogoak, argitalpenak eta merchandisinga, besteak beste**). Horrek guztiak elkartutako ingurumen-inpaktu bat du, eta, batera hartuta, aztertutako arlo guztietan emisio gehien duen bigarrena izatea dakar horrek.

Mugikortasunak ez bezala, **hobetzeko ahalmen handiagoa du**, ordea, aukera gehiago baitaude produktu edo zerbitzu bat edo beste bat hautatzeko orduan. Produktu bat edo beste bat erosteko edo zerbitzu bat edo beste bat kontratatzeke orduan **ingurumen-irizpideak** sartuz gero, oso litekeena da eragin handia lortzea Zinemaldiari lotutako karbono-emisioetan.

Erosketen inpaktu hori **kontratazio-bolumen handiak**, batetik, eta egindako **azterketa xehatuak**, bestetik, ekarri dute. Sektore horren inpaktua handitu du kontratatutako erosketa eta zerbitzu guztiak neurtu izanak, baina **emisioen bilakaera kalitate eta zehaztasun handiagoz neurtzen lagunduko du** horrek, halere.

Laneko joan-etorriak mugatzen zailak dira, baina erosketetan, kasuaren arabera, aukera bat edo batzuk daude hautatzeko. Urte osoan zehar erosi eta azpikontratutako material, produktu eta zerbitzuetan, askotan, ingurumen-irizpideak txertatu daitezke, eta karbono-emisioen gainean eragingo dute horiek.

Egindako ekintzak


- Erakundeak kontratatu dituen enpresen % 16k ingurumen-ziurtagiria dute.
- Produktu askotan alokairua lehenesten da erosketaren gainera; ohitura hori bat dator jasagarritasunarekin, eta inpaktu handiagoa egotea eragozten du.



Emaitzak

Kontratazioa

Kontratatutako enpresen jardueraren ondoriozkoa da inpaktua; zerbitzu jasangarriagoak edukitzeko joera beharrezkoa bada ere, zenbait enpresak ez dute zerbitzu edo produktu jasangarriago bat eskaintzeko ahalmenik.



Grafikoa. Ekitaldiaren erosketen emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.


Evento

Ekitaldiak Zinemaldiaren aurrekontu osoaren % 90 hartzen du irauten duen bederatzai egunetan.

Bolumen ekonomikoaren arabera gehien kontratatutako sektorea lanbide-jarduera zientifiko eta teknikoena da, horretan sartzen dira, izan ere, zerbitzu hauek: muntaketa-lanak, aretozainak, Ekitaldiak, errotulazioa eta eszenografia, besteak beste. Zinemaldiak askotariko kontratuak ditu sinatuta, eta horrek agerian uzten du **irizpide jasangarriak sartzeko ahalmen mugatua duela, enpresek ez baitute maiz produktu edo zerbitzu jasangarriagorik eskaintzeko ahalmenik,** eta irizpide horiek sartzek, gainera, lehia askea zalantzan jar dezake. Nolanahi ere, kontratazioan ingurumen-irizpideak sartzek araudi eta erregulazio guztiak bete behar ditu beti.

Catering- eta errotulazio-zerbitzuak zein argiztapen-azpiegiturak dira ingurumen-baldintzak errazten har daitezkeen zerbitzuak.

Hasteko, ingurumen-baldintzak hartzeko orduan **erantzuteko ahalmen handia duten kontratuetan zentratu beharko** ginateke, eta haien inpaktuak gutxitzeko orduan garrantzitsuenak zein diren pentsatu beharko genuke, orobat.




Grafikoa. Kontratazio-bolumenaren ehunekoa, jardueraren arabera, 2019ko Zinemaldiaren Ekitaldian.



Emaitzak

Kontratazioa

Kontratazio-bolumenak arlo honen inpaktua zehazten du; kontratatutako enpresen jardueratik dator hori.



Grafikoa. Erakundearen erosketen emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.

Erakundea


Erakundeak 2019an izandako jardueran Zinemaldiaren gastuak aurrekontu osoaren % 10 inguru izan ziren; gastuen % 96, zerbitzuak kontratatzearen ondorioz.

Erosketen inpaktu hori kontratazio-bolumen handiak, batetik, eta egindako azterketa xehatuak, bestetik, ekarri dute. Sektore horren inpaktua handitu du kontratatutako erosketa eta zerbitzu guztiak neurtu izanak, baina **emisioen bilakaera kalitate eta zehaztasun handiagoz neurtzen lagunduko du** horrek, halere.

Jarduerak kontratazio-bolumenaren arabera aztertuta, honako hau ondorioztatzen da: Erakundeak aurrekontuaren % 41 bideratu du 2019an webgunearen garapena eta mantentze-lanak kontratatuzera. Ondoren, zerbitzu hauek datoz: bulegoen garbiketa, lokalen alokairua eta onlineko zerbitzuen kontratazioa edo berritzea.

Kontratatutako enpresen % 16k ingurumen-ziurtagiria zuten.


Hornitzaile eta elkartutako enpresetan jasagarritasunaren inguruan jorratutako lan-ildoaren adierazle da datu hori. Zinemaldiari jasanarazten dioten inpaktuan islatzen da hori; ehuneko hori urtez urte handitzen joatea aurreikusten da.



Grafikoa. Kontratazio-bolumenaren ehunekoa, Erakundearen jardueraren arabera, 2019an.

Emaitzak

Kontratazioa



Arloaren ondorioak

INPAKTUA

Material eta zerbitzu asko behar dira nazioarteko zinema-jaialdi bat abian jartzeko, eta, horren ondorioz, kategoria hau nagusienetako bat da inpaktuari dagokionez.

- **EKITALDIA [INPAKTUA – ERTAINA/HANDIA]:** Hain ekitaldi handia prestatzeak oso gastu handia dakar askotariko gaietan (hala nola azpiegiturak, itzultzaileak, argi- eta soinu-teknikariak, katalogoak, argitalpenak eta merchandisinga, besteak beste). Ingurumen-inpaktu bat ere badago horrekin guztiarekin batera, eta aztertutakoetatik emisio gehien duen bigarrena da atal hau horregatik.
- **ERAKUNDEA [INPAKTUA – ERTAINA]:** Erakundeak inpaktu erlatibo dezente sortzen du, halaber, urte osoan zehar kontratatutako material eta zerbitzuen ondorioz.

JARDUTEKO AHALMENA

Jarduteko ahalmen mugatua dago, eta sektore jakin batzuetan soilik; aukera dago kontratazioan ingurumen-aldagaia sartzeko, halere.

Hobetzeko nolabaiteko ahalmena dago arlo honetan, aukera baitago produktu edo zerbitzu bat edo beste bat hautatzeko. Gauza bat edo beste bat erosteko orduan ingurumen-irizpideak sartzeak inpaktu ziurra izan dezake Zinemaldiari lotutako karbono-emisioetan, eta bultzatu egiten ditu, orobat, enpresa kolaboratzaileak jasangarritasunaren inguruko espezializazio-arlo baterantz.

- **EKITALDIA [EKITEKO A. – ERTAINA/HANDIA]:** Esleitzeko irizpideak egun batetik bestera aldatzerik ez dagoela egia bada ere –eta zenbaitetan, gainera, ezinezkoa izango da produktuak/zerbitzuak aldatzea–, beste kasu batzuetan aurrera egin behar dugu.
- **ERAKUNDEA [EKITEKO A. – ERTAINA]:** Erositako produktuak eta kontratatutako zerbitzuak deskarbonizatzen zailak dira askotan, baina jasangarritasun-irizpideak gehitu daitezke horietako batzuetan.

GARRANTZIA – ERTAINA

Kontratazioaren eta erosketen arloak garrantzia du, islatzen baitu nazioarteko ekitaldi batek bere Erakundetik beretik haragoko dimentsioa duela; eta konpromisoa, ahal den neurrian, gainerako kolaboratzaileei helarazi beharra dago.


Enpresa kolaboratzaileak gero eta konprometituago daude jasangarritasunarekin, horrelako ondasun eta zerbitzuen eskari handiagoa dagoela baitakite. Enpresa horiek sortutako inpaktua handia dela onartu behar dugu, baina merkatua ere ezagutu behar dugu, eta kontratazio-erritmo jasangarria aplikatzen joan, dena delako sektoreari egokituta.



Emaitzak

Energia

Energia-kontsumoek sortutako ingurumen-inpaktua txikia da, baina badu, orobat, bere eragina ingurumenean.



Grafikoa. Energiaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.

Testuingurua

Enpresen jarduerak ingurumen-inpaktu bat du egiten dituzten kontsumoei, mugikortasunari eta abarrei lotuta, eta azken kontsumitzaileari helarazten zaio inpaktu hori. Zinemaldiaren alderdi guztiak behar bezala joan daitezzen zerbitzu asko kontratatu eta produktuak eta materialak erosten direnez, handia da inpaktua.

4.000 akreditatu baino gehiago joaten dira urtero Zinemaldia. Ikusi dugun bezala, inpaktua du horrek ingurumenean, mugikortasunaren ondorioz, baina nolabaiteko inpaktua dago, halaber, ostatu hartzen duten hoteletan. **Inpaktu erlatiboa txikia bada ere, eraikinetako jasangarritasun-praktika egokien antzeko jarduketak sustatu daitezke.**

Lanaren ondorioz hartutako ostatuei dagokienez, arlo horretan zailtasunak daude, halaber, irtenbideak planteatzeko orduan. Ez dakarte, guztira, oso inpaktu handia, baina laneko bidaia baten alderdi guztiak kontuan hartu beharko genituzke, hasieratik amaierara arte sortutako inpaktua gutxituko badugu. Mugikortasunean eta/edo erosketetan bezalaxe, **ingurumen-inpaktu txikiagoa duten ostatuak hautatzen laguntzen duten jasangarritasun-irizpideak** sartzeak balio dezake arlo horretan egin beharreko lehen urratsak orientatzeko.

Energia termikoak elektrikoak baino askoz emisio gehiago sortzen ditu, ez duelako iturri berriztagarrik erabiltzen, edo gas hozgarriak erabiltzen dituelako; oso gas kutsagarriak dira eta girotze-sistemetan erabili ohi dira. Zinemaldiaren kasuan, instalazioak dauden Tabakalera eraikinaren mende daude kontsumo horiek, ez dago tarte handirik, beraz, jarduketak proposatzeko orduan.

Egia da, baina, **Tabakaleraren aldetik konpromiso bat dagoela** jasangarritasunaren eta emisioak murriztearen arloan; teilatuan ezarritako eguzki-plaken bidez **energia berriztagarria ekoizteak erakusten du konpromiso hori.**

Egindako ekintzak


- Luminaria halogenoak LEDez ordeztzeko prozesua aurrera eramaten ari gara.
- Energia efizienteen sistemak hartzen ari gara kontratazioaren bitartez eta gailu elektronikoak erosituz.



Emaitzak

Energia

Ekitaldian kontsumitutako energia akreditatuek ostatu hartutako tokietan eta erabilitako eraikinetan neurtu da.



Grafikoa. Ekitaldiaren energiaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.

Ekitaldia

Ostatuak

Akreditatuentzako ostatuek sortutako ingurumen- inpaktua txikia da.

Zinemaldiaren Ekitaldiaren egunetan, akreditatuentzat 9 ostatu-gau izan ziren hiriko zenbait hoteletan. Ostatu horiek erabiltzearen ondoriozko karbono-emisioak kalkulatzeko, **9 gauetarako estimazioak egin dira iraileko energia-, elektrizitate- eta ur-kontsumoen guztizko datuak aintzat hartuta.**


Datu horiek zehatz-mehatz aztertuz gero, ikusten da emisio gehienak elektrizitate-kontsumotik datozela. Gero, energia termikotik (gas naturala eta diesela), eta, azkenik, ur-aztarnatik (ostatuetako ur-kontsumoa).

Eraikinak


Zinemaldian erabilitako eraikinen kudeatzaileekin elektrizitatea deskarbonizatzeke aliantzak egitea ingurumena hobetzeko gune estrategiko bat dira.

Ekitaldia egitearekin zerikusia duten jarduerak hartzen dituzten eraikinen kontsumoen eta emisioen emaitzari begiratuta, **emisioen eragile nagusia elektrizitatea** dela ikusten da. Oso litekeena da arlo honetan aldaketa handiagoa egotea beste batzuetan baino, urtearen eta tenperaturen arabera; horregatik, onena izango litzateke zenbait urtetako energia-kontsumoa ezagutzea, gerta litezkeen gorabeheren berri izateko.

Nolanahi ere, Zinemaldiak energia-kontsumo arduratsuagoa sustatzearen alde egin dezake bere ekitaldi guztietan, eta honelako praktika jasangarriak hartzea bultzatzen duten jarduketak bultzatzea: leihoak ixtea; argia eta gailu elektronikoak itzaltzea; tenperatura egonkorra eta ez oso beroa erabiltzea, besteak beste.



Grafikoa. Ekitaldiko ostatuaren energiaren emisioen ehunekoa 2019an.




Grafikoa. Ekitaldiko eraikinen energiaren emisioen ehunekoa 2019an.



Emaitzak

Energia

Erakundeak inpaktu-txikia du energia-kontsumoari dagokionez, baina egunero kontsumo kontzientea egitea gomendatzen du.



Grafikoa. Erakundearen energiaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren azterna osoan.

Hotelak	Japonia	3 bidaia, 20 gau, 4 pertsona
	Frantzia	7 bidaia, 57 gau, 10 pertsona
	Espainia	12 bidaia, 48 gau, 12 pertsona
	Alemania	5 bidaia, 34 gau, 6 pertsona
	Estatu Batuak	1 bidaia, 5 gau, 2 pertsona
	Txina	1 bidaia, 7 gau, 1 pertsona
	Ingalaterra	1 bidaia, 10 gau, 2 pertsona
	Italia	1 bidaia, 3 gau, 1 pertsona

Erakundea

Ostatuak

Inpaktu erlatibo txikia ekarri arren, bidaietan hautatutako ostatuek ere badute eraginik ingurumenean.

Ostatuen ondoriozko emisioei buruzko datuak metodologia ofizialaren arabera bildu dira. Metodologia horrek hotelen emisioak estandarizatzen ditu helmuga-herrialdeen arabera. Horregatik, emisio erlatiboak ezagut ditzakegu, baina ez du aukerarik ematen ondorioak beste arlo batzuetan bezainbesteko zehaztasunez ateratzeko, ostatu horiei buruzko datu zehatzik ez baitago.


Eraikinak

Aire girotuaren kontsumoa da kutsagarriena, eta zentzuz kontsumitu behar da.

Energia termikoaren ondoriozko emisioetatik, ia guztiak **aire girotuaren kontsumo**tik datozela nabarmendu behar dugu; izan ere, **berotzeko ahalmen handia** du, eta, horrenbestez, emisio-faktore handia.

Kontsumo elektrikoak ez du ingurumen-inpaktu handirik, baina ez dugu alde batera utzi behar

Energia elektrikoari dagozkion emisioak bakarrik hartuz gero, inpaktu handirik ez dakarrela ondorioztatzen da, baina erraz eskuratzeko moduko energia berriztagarrien bidez deskarbonizatzeko ahalmena duela nabarmentzen da. Elektrizitatearen ehuneko bat Erakundearen bulegoetan jarritako plaka fotovoltaikoek sortzen dute gaur egun; energia berriztagarriak izanik, emisio-faktore nulua esleitzen zaie horiei Ezarritako plaka-sistemak ez du oraindik aski bolumen edo gaitasunik Erakundearen eskariari erantzuteko. Baina lehen urrats bat dira, eta deskarbonizazioaren alde egiteko erraztasuna ematen dute.



Grafikoa. Erakundearen energia-erabileren inpaktuaren ehunekoa 2019an.

Emaitzak

Energia



Arloaren ondorioak

INPAKTUA

Emanaldi kopurua, zinema-aretoetako girotze-sistema edo ostatuak gorabehera, Zinemaldiak ez du oso energia-kontsumo handirik, eta inpaktu erlatiboa txikia da horren ondorioz.

- EKITALDIA [INPAKTUA – TXIKIA]: Energiak karbono-emisioen gainean duen inpaktua txikia da, honako alderdi hauek kontuan hartuta: emanaldi kopurua, argiztapena, ekitaldi paraleloak, eremuetako girotze-sistema, bai eta Zinemaldiako gonbidatuen ostatuen energia-kontsumoa ere. Horrek iradokitzen du atzetik badagoela lan bat kontsumoa ahalik eta txikiena izan dadin, eta dirua aurrezteko, eragile kolaboratzaileen aldetik (hau da, Ekitaldiak hartzen dituzten eraikinak eta akreditatuek ostatu hartzen duten hiriko hotelak).
- ERAKUNDEA [INPAKTUA – TXIKIA]: Erakundeak inpaktu txikia sortzen du instalazioak erabiltzearen eta atzerriko ostatuen ondorioz.

JARDUTEKO AHALMENA

Beste batzuek sortzen dituzte energia-kontsumo gehienak, hau da, Ekitaldia egiteko alokatutako eremuek eta hotelek; hori horrela, txikia da kontsumoaren eta emisioen kantitateetan eragiteko ahalmena.

Kontsumo-tasak, edo energia-iturriak, egun batetik bestera aldatzerik ez dagoen arren, bultzatu ahal dira jardunbide egokiak eragile kolaboratzaileen artean, eta ingurumen-zigiluak lor ditzaten akuilatu, emisioak gutxiagotzeko, baina baita kostu ekonomikoak gutxiagotzeko ere. Gainera, Zinemaldiaren sensibilizatzeko eta kontzientziazteko ahalmena Ekitaldiaren bederatzi egun horietatik harago doa, eta are inpaktu handiagoa sor dezake mundura zabaldutako mezuen garrantziagatik, argia itzaltzeagatik baino.

- EKITALDIA [EKITEKO A. – TXIKIA]: Zinemaldiaren antolatzaileek nekez eragin dezakete beste batzuen energia-iturri eta -kontsumoetan.
- ERAKUNDEA [EKITEKO A. – ERTAINA]: Erakundeak Tabakalerarekin elkarlanean lan egin dezake energia-erabileraren arloko ohitura jasangarriak sustatzeko, eta, ahal den neurrian, energia berriztagarrien iturriak bultzatzeko.

GARRANTZIA – TXIKIA

Erabatekoa da energiaren gaineko mendekotasuna, eta horren erabilera arduratsua egin behar da horregatik.


Energia-trantsizioa bidean da, eta berriztagarriak tokia kentzen ari zaizkie erregai fosilei, batez ere energia elektrikoari dagokionez. Horrek ez du indargabetzen arazo nagusia energia-kontsumo handiak izatea oraindik.



Emaitzak

Hondakinak

Datuek hondakin ugari sortzen direla erakusten dute, batez ere papera eta kartoia, eta baita errefusa ere.



Grafikoa. Hondakinaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.

Egindako ekintzak

- Ekitaldiaren hondakinaren % 76 eta Erakundearen hondakinaren % 96 birziklatzen dira.
- Zinemaldia digitalizatzeko prozesu baten barruan murgilduta dago, eta paper-bolumen handiak ez dira inprimatzen dagoeneko horri esker. Zinemaldiaren bulegoetan erabilitako paper guzti-guztia paper birziklatua da.
- Sortu eta soberan gelditutako merchandisingaren % 90 berrerabili egiten da. Atal honetan adierazi behar dugu, halaber, ehunetan erabilitako kotoia % 100 organikoa dela.

Testuingurua

Hondakinaren kudeaketa gainditu gabeko irakasgai bat da oraindik gaur egun EAEn eta estatuan, azken urteotan ratioak eta hondakinaren gaikako bilketa hobetu badira ere.

Karbono-aztarnak ez du islatzen hondakinaren inpaktuaren neurria, mugikortasunaren aztarnaren itzalpean baitago; hala eta guztiz ere, **bilketari buruzko datuek erakusten dute hobetzeko eta murrizteko tartea dagoela hondakinaren sorrerari eta kudeaketari dagokienez.**

Arlo honetako lehentasunezko alderdietako bat da, ordea, **gogoeta egitea ea sortzen ditugun hondakin guztiak benetan sortu behar ditugun.** Kopuru horien atzean aise alda genitzakeen ohiturak eta errutinak daude maiz, eta horrela hondakin hori sortzeari uzteko. Horrela gertatzen da paperari eta kartoiari dagokienez; izan ere, hondakin horien sorreran zuzeneko eragina dute lanen digitalizazioak eta –dokumentu fisikoak egiteko orduan– fotokopiak eta inprimagailuak gutxiago erabiltzeak. Behin erabiltzeko ontziak dira beste adibide bat; hala bada, horrelakoak ez erabiltzeko politika ezarri gero, kopuru horiek murriztea eta inpaktu hori gutxia eragozteko lortuko genuke. Beste kasu edo egoera batzuetan, ordea, zailagoa da hondakinak murriztea edo ezabatzea; horrenbestez, hondakin horiek egoki kudeatu eta birziklatzea da gelditzen zaigun bidea.


Illo horretatik, Zinemaldian sortutako hondakin gehienak **papera, kartoia eta errefusa** dira. Hortaz, inpaktua ezabatzeko bi estrategia ezberdin eta osagarriak behar direla ondoriozta dezakegu: papera eta kartoi gutxiago erabiltzea eta, horrekin batera, dokumentuak digitalizatzea; eta hondakinak behar bezala bereiztea, batez ere organikoa ez delako bereizten, eta ondorioz, nabarmen handitzen da errefusaren kantitatea.



Emaitzak

Hondakinak

Ekitaldian 4.852 kg hondakin sortzen dira; horietatik, % 9 berriz erabiltzen da, eta % 76, birziklatu egiten da.



Grafikoa. Hondakinen emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.


Ekitaldia

Bederatzi eguneko Ekitaldian sortutako hondakinen bolumenak (4.682 kg) ingurumen-inpaktu handia jartzen du agerian, karbono-aztarnaren kalkuluak hori islatzen ez badu ere.

Hondakinen arloa, baina, funtsezko elementua da erakunde, enpresa eta/edo ekitaldi batean ingurumen-baldintzak sartzeko prozesuan. Hainbat arrazoi tarteko, karbono-aztarnak ez du islatzen jarduera horrek sortutako inpaktua (% 0,01). Zinemaldiaren Ekitaldian, zehazki, 4.862 kg hondakin sortzen dira; kontuan hartu beharreko datu bat da.

Neurtu, murriztu eta bereiztea, hondakinetan gainditu gabe dauden irakasgai nagusiak.

Bi hondakin mota hauek sortzen dituzte, batez ere, emisioak: paperak eta errefusak. Paperaren eta kartoiaren hondakinei lotutako emisioak, proportzioz, hondakin kantitatearen eta sortutako emisioen antzekoak badira ere, nabarmentzekoa da datuak oso bestelakoak direla beirari eta errefusari dagokienez. Hori hala da haien bizitzaren amaieran honako artean aukeratzearen ondorioz: berriz erabiltzea (inpaktua ia desagertzen da), birziklatzea (energia asko behar da hondakinak eraldatzeko) edo zabortegira eramatea (oso inpaktu handia dago; izan ere, lurzorua erabiltzea eta partikulak igortzea dakar, eta ez da lortzen balio-katean produktu bat berriz sartzea).




Grafikoa. 2019ko Ekitaldian hondakin motaren arabera sortutako hondakinen kg-en ehunekoa*.



Emaitzak

Hondakinak

Sortutako hondakinen bolumenak karbono-aztarnaren kalkuluan islatuta ez dagoen ingurumen-inpaktua jartzen du agerian.



Grafikoa. Hondakinen emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.


Erakundea

Ur-kontsumoak eta hondakinek ingurumen-inpaktu handia dakarte, sortutako hondakin kantitatea bezalako adierazleei begiratuz gero.

Karbono-aztarnan islatutako inpaktua oso txikia da, ordea: Zinemaldiaren Erakundeak 2019an sortutako emisioen % 0,8 baino ez dira bien artean. Beste alderdi batzuen neurriak eragiten du hori (mugikortasuna, adibidez), hondakinetan eragin beharra ezkututzen baitute horiek.

Sortutako errefusaren bolumenak birziklatzeko tasa hobetu daitekeela erakusten du.

Urte osoan zehar, errefusa eta papera/kartoia izan dira gehien sortutako hondakinak. Hala, bi hondakin horiek kutsatzen dute gehien Erakundearen kalkuluan. Sortutako kg bakoitzeko bolumen handien duen hondakina papera/kartoia bada ere, nabarmendu behar dugu ez dela ingurumenean eragin handiena duena, gehiena birziklatzen baita. Errefusa, ordea, bolumen handiak eduki ez arren, gehien kutsatzen duen hondakina da, ezin delako birziklatu eta inpaktu-faktore handiagoa duelako. Hori horrela da 2019an ez zituztelako oraindik hondakin organikoak bereiz kudeatzen, eta, ondorioz, nabarmen handitzen zuen horrek zabortegira eraman beharreko errefusaren kantitatea.




Grafikoa. Erakundearen 2019an hondakin motaren arabera sortutako hondakin-kilogramoaren ehunekoa.



Emaitzak

Hondakinak



Arloaren ondorioak

INPAKTUA

Ekitaldiak bide luzea du egiteko hondakinen kudeaketan, hala behin bakarrik erabiltzeko produktuak kenduz, nola bilketa eta tratamenduan.

- EKITALDIA [INPAKTUA – ERTAINA/HANDIA]: Hondakinek ez dituzte emisio ugari sortzen, emisioak, gehienbat, materialak ateratzean eta ekoizteko aldietan sortzen baitira. Horrez gain, bestelako kalteak ere egiten dizkiote ingurumenari; lurzorua kutsatzea, adibidez, baina horiek ez dira karbono-aztarnan ikusten. Horregatik, hain zuzen ere, hondakinen inpaktuaren neurketak zerikusi handiagoa du sortutako hondakin kantitatearekin, hondakin motarekin eta gaikako bilketa izatearekin, horrek erakusten baitu ibaian gora sortutako inpaktua. Ekitaldiaren egunetan hondakin ugari sortzen dira merchandisinga, behin bakarrik erabiltzeko produktuak eta dekorazioa direla eta, besteak beste.
- ERAKUNDEA [INPAKTUA – TXIKIA]: Erakundeari dagokionez, sortutako paper- eta kartoi-hondakinak dira gairak beharrezko arazo nagusia.

JARDUTEKO AHALMENA

Zinemaldiak erabateko ahalmena du produktu eta material berrerabilgarriak eskaintzeko, gaikako bilketaren alde egiteko eta bertaratutakoak sentsibilizatzeko.

Nahiz eta hondakinen % 9 berrerabili eta % 76 birziklatu (% 96, Erakundearen kasuan), are ahalegin handiagoa egin behar da sortutako hondakinen bolumen osoa murrizteko.

- EKITALDIA [EKITEKO A. – HANDIENA]: Hondakin gutxiago sor daitezten sustatzeko ahalmena du Ekitaldiak, marketin-produktuak eta behin bakarrik erabiltzekoak kenduz, bai eta sortzen diren hondakinen bilketa eta kudeaketa hobetuz ere.
- ERAKUNDEA [EKITEKO A. – HANDIENA]: Erakundeak hondakinen sorreran eragiteko ahalmen handia du, digitalizazioaren bidez, produktu biodegradagarriak erabiliz eta hondakinen gaikako bilketa hobetuz.

GARRANTZIA – OSO HANDIA

Hondakinen gaiak berebiziko garrantzia du, hala nazioartean nola herrialdean.

Hondakinen arazoa funtsezkoa da ingurumenaren eta jasangarritasunaren gaiari heltzeko orduan, batez ere 180.000 ikusle baino gehiagoko ekitaldi bat dela kontuan hartuta. Kontzientziazioa eta erabili eta botatzeko eredia geldiaraztea guztioi dagozkigu, eta bereziki azpimarratu behar da arlo horretan ingurumenaren arloko arazo nagusiak arindu eta naturaguneen zein giza ingurunearen kalitatea babesteko nahi izanez gero.



Emaizak

Konpromisoa

Zinemaldiak ahalmen oso handia du jasangarritasunarekin konprometituko ekitaldi gisa agertzeko eta eragile aitortu bihurtzeko.

2016an, Zinemaldiak **CO₂ Ekitaldia: Donostia klimaren alde** diploma jaso zuen

Testuingurua

NBIP Nazio Batuen Ingurumeneko Programaren arabera, honako hau da ekitaldi jasagarri bat: «Ingurumenean izan ditzakeen eragin negatiboak minimizatzeke moduan diseinatu, antolatu eta egindakoa, eta berau hartzen duen komunitatearentzat eta parte hartzen duten guztientzat ondare onuragarria uzten duena».

Konpromisoa ildo horretatik beretik doa, Zinemaldiak **esperientzia eredugarria** eskaini ahal baitie emanaldietara zuzenean joaten diren **ikusle ugariei**, bai eta kolaboratzaileei, bazkideei eta Ekitaldia munduko edozein tokitan jarraitzen dutenei ere.

Nazioarteko zinema-jaialdi bat **plataforma bikain bat da** askotariko profilak eta interesak dituzten herritarrei ingurumen-arazoei eta klima-krisiari buruzko arazoez sentsibilizatu eta kontzientziatzeko **mezuak helarazteko**, eta, horrekin batera, Zinemaldia bera gaur egungo eta etorkizuneko ingurumen-erronkak gainditzeko aliatu modura agertzen da munduan.

Ekitaldian zehar neurri zehatzak egiteak baino inpaktu handiagoa izan dezake Zinemaldia xede hauetarako erabiltzeak: ingurumenaren arloko jardunbide egokiak ezagutarazteko eta Ekitaldiaren ataletan gogoeta eta eztabaida bultzatzeko. Gainera, **Zinemaldiaren egunetan ingurumen-aldagaia sartzeak zuzenean lagunduko du aztertutako parametroak hobetzen**, zaborra murrizten, eremuak garbitzen, argia eta ura hobeto erabiltzen eta hondakinen gaikako bereizketa areagotzen, besteak beste.

Era horretako ekitaldi batek hedabideen arreta erakartzen du, orobat. Hedabideek mezu horiek errepikatu, zabaldu eta areagotzeko gaitasuna dute, eta horrek gure ingurunea nola zaindu ikastera darama, zeharka bada ere.

Egindako ekintzak

- Ingurumen-diagnosi zehatua egin da ingurumen-ikuskapen gisa, eta langileak, bazkideak eta hornitzaileak hartu dira kontuan.
- Bi prestakuntza-jardunaldi egin dira Zinemaldiako barneko langileekin.



Emaitzak

Konpromisoa

Zinemaldiak Ekitaldian islatu duen konpromisoak are anbizio handiagoa behar du nazioarteko gaur egungo jasangarritasun-estandarrekin bat egin dezan; Erakundeak kudeaketa arduratsuagoa erakusten du, ordea.

Ekitaldia eta Erakundea


EKITALDIA: Zinemaldiaren jasangarritasunaren alde egiteko adostasuna badago ere, horrek ez du oraindik benetako konpromisorik ekarri.

Jasangarritasunaren arloan unean uneko zenbait ekintza egin arren, Zinemaldiak hobetzeko ahalmen handia du bere konpromisoa arloetan zeharka erakusteko orduan, eta bereziki mezuak zabaltzeko eta munduari begira ekitaldi jasangarri eta eredugarri modura agertzeko orduan.


ERAKUNDEA: Gero eta ohitura gehiago ditu jasangarritasunaren arloan.

Ingurumen-aldagaia sartzen ari da material eta hondakinen eguneroko kudeaketan, eremuen erabileran, elektrizitate eta kontsumoetan, bai eta laneko joan-etorrietan ere, besteak beste. Nolanahi ere, askotan, hastapenetan baino ez dago bide hori, eta hobetzeko tarte gelditzen da oraindik, aurrera egin dezagun: batetik, ingurumen-inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin, eta, bestetik, jasangarritasunaren aldeko konpromisoa zeharkakoa bilaka dadin, Erakundearen eguneroko kudeaketaren zeregin bezala.

Garrantzitsua al da Zinemaldiak jasangarritasunaren aldeko apustua egitea?




Jasangarria al zara zure egunerokoan?



Emaitzak

Konpromisoa



Arloaren ondorioak

INPAKTU

Zinemaldiak ez du era adierazgarrian erakutsi Ekitaldia diseinatu, inplementatu, ebaluatu eta jakinarazteko orduan ingurumen-aldagaia sartu duenik, eta, zeharka, inpaktu handia sortzea dakar horrek.

- EKITALDIA [INPAKTUA – HANDIA]: Azterketak agerian jarri du ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloko alderdi asko ez direla kontuan hartzen Zinemaldiaren bederatzi egunak planifikatzeko orduan. Ez ziren birziklatu, esate baterako, cateringak, erabili eta botatzeko produktuak, merchandisinga eta dekorazioa (eta birziklagarriak ere ez ziren haiek); eta bultzatu ere ez zen bultzatu mugikortasun-alternatiba jasangarririk, hondakinen kudeaketa zorrotzagarik edo energia-kontsumoen murrizketarik. Egia da, kasu askotan, aldagaiak hirugarrenei dagozkiela, baina, nolanahi ere, Zinemaldiak alderdi askotan eragiteko ahalmena du, eta, munduari begira guztiz konprometitutako ekitaldi modura ager daiteke, besteak beste, mezuak eta kanpaina tematikoak zabalduz eta kolaboratzailek jasangarrienak aitortuz.
- ERAKUNDEA [INPAKTUA – TXIKIA]: Erakundeak, berak bakarrik, ezin du oso inpaktu handirik izan jasangarritasunaren arloan konpromisoa duela eta/edo eredu garria dela munduaren aurrean erakusteko.

JARDUTEKO AHALMENA

Konpromisoa da Zinemaldiaren jarduteko ahalmenik handiena; izan ere, jasangarritasunak eta ingurumena errespetatzeak berarekin dakartzaten aukerak erakusteko eta arlo horren munduko eredu izateko pribilegioa du.

- EKITALDIA [EKITEKO A. – HANDIA]: Zinemaldiak jakin behar du ahalmena duela honako helburu hauei irimo lotutako Erakunde eta Ekitaldi gisa kokatzeko: batetik, ingurumena zaintzeko helburuei lotuta, eta bestetik, ingurumen-inpaktuak murrizteko erantzukizun partekatuaren aldeko helburuei lotuta (hala bere jardueraren inpaktuak, nola ikusleen, akreditatuen, enpresen, kolaboratzaileen, bisitarien eta jakin-nahia dutenenak). Horretarako jardunbidea hau da: ohitura jasangarriei buruzko mezuak zabaltzeko plataformak aktibatzea; jarduketa enblematikoak ezartzea; ingurumenaren jarraipen eta ebaluazioaren barneko kudeaketa hobetzea; langileei, bazkideei eta erakunde eta enpresa kolaboratzaileei prestakuntza ematea, eta, azken batean, Zinemaldiaren inguruko guztian eragina izatea.
- ERAKUNDEA [EKITEKO A. – ERTAINA]: Erakundeak ingurumen-arazoarekiko sentsibiltate handiagoa erakusten du, baina oraindik ez da hori eguneroko ekintzetara eramatea lortu; gehienbat, hasierako fasean dauden jarduketak dira.

GARRANTZIA

Nazioarteko zinema-jaialdi batek ingurumenaren aldeko konpromisoa erakustea eta eredu garri izatea da Zinemaldiak lortu ahal eta behar duen garrantzitsuena.



Emaitzak

Diagnosiaren laburpena


Bakoitzak dagokion neurrian, **Ekitaldiak eta Erakundeak** inpaktuen emaitza, jarduteko ahalmen eta arlo bakoitzaren garrantzi **berak dituzte oro har.**

Nabarmendu behar dugu Erakundeak ez duela inpaktu handiena duten arloetako batzuen gainean **bere kabuz eragiteko ahalmen handirik**, baina jardunbide egokiak kudeatzeko eta sustatzeko, eta horiez kontzientziatzeko jarduketak egin ditzake, eta lehengoratzeko eta basoberritzeko proiektuen bidez emisioak konpentsatzen lagundu dezake, orobat.

Konpromisoa




Hondakinak




Erosketak



Mugikortasuna



Energia





SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Ondorioak



Ondorioak

Mezu orokorrak

Zinemaldiak inpaktu handia du karbono-emisioei dagokienez, Donostiako Kontxako badiaren neurriko baso bat beharko bailitzateke igorritako CO₂-a urtero xurgatzeko.

Karbono-emisioetan neurtutako ingurumen-inpaktuak erakusten du Zinemaldiaren inguruko jarduera guztiak inpaktu adierazgarri handia sortzen duela. Munta horretako ekitaldi batean mugikortasunak, erabilitako materialek, cateringak, argiztapenak, energia-kontsumoek eta garbiketak, besteak beste, emisio handiak sortzen dituzte. Nabarmentzekoa da, orobat, ikusle asko bertaraten direnez, karbono-aztarna erlatiboa txikiagoa dela herrialdean egiten diren beste ekitaldietan baino.

Mugikortasuna da emisio-gune nagusia (emisio guztien % 75), eta hori da –eta ondoren hondakinena– Zinemaldiak gainditu nahi duen ingurumen-erronkarik handiena.

Zinemaldia egiteak sortutako mugikortasunak ingurumen-inpaktu handia du; eta gauza bera esan dezakegu Zinemaldiaren bederatzi egunetan sortutako hondakinei dagokienez, zeinek oso askotariko jatorria duten. Hori horrela, hondakinen kudeaketa eta mugikortasun jasangarriaren sustapena dira heldu diren edizioetan lehentasunez landu beharreko bi arloak, besteak beste.


Ingurumen-inpaktua murrizteko lanean ari gara karbono-neutraltasuna lortzeko helburuarekin bat etorrira.

Zinemaldiaren barruan, Ingurumen Diagnostika eta Ekintza Plana egiteaz gain, zenbait arlotan (energia, mugikortasuna eta hondakinak, besteak beste) karbono-emisioak murrizteko lanean ari gara, askotariko jardueren bitartez: argi halogenoen ordez LED argiak erabiltzea; bidaiak furgonetan egitea, edo bere instalazioetan sortutako hondakin guztien gaikako bilketaren alde egitea. Nolanahi ere, helburu hori lortuko badugu, aldaketaren alde egiten duten eragileak beharko ditugu inguruan, zenbait faktore aldatu beharra ahaztu gabe, hala nola mundu osoko energiaren eta mugikortasunaren ereduak, baina baita bertako herritarren ohiturak ere, karbono-neutroak izan nahi badugu.

Zinemaldiaren tankerako ekitaldi baten ingurumenaren eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa helaraztea emisioak zuzenean

murriztea bera bezain garrantzitsua edo hori baino garrantzitsuagoa izan daiteke.


Zinemaldiak plataforma ezin hobea du klima eta jasangarritasunaren aldeko kontzientziazio eta konpromisoari buruzko mezu irmoa helarazteko; izan ere, nazioartean entzun daiteke bere ahotsa, eta jasangarritasunaren aldeko eragile eredugarri bihurtu; emisioak zuzenean murrizteak berak baino oihartzun handiagoa izan dezake ondorioz.





Ondorioak


Konpromisoa




Hondakinak




Erosketak



Mugikortasuna




Energia





Ondorioak




Zinemaldiaren ingurumen-inpaktua aztertzeko orduan bost arlo hartu dira kontuan, eta arlo horiek jarduera osoa hartzen dute barnean, bai Ekitaldiaren 9 egunetako jarduera, bai Erakundearen jarduera.

Mugikortasuna


- Mugikortasunak sortzen ditu Zinemaldiaren karbono-emisioen % 75.
- Zinemaldiak erakarritako mugikortasunak dakar ingurumen-inpakturik handiena, batez ere Ekitaldira nazioartetik heldu diren akreditatuak, 9 egunetan bertaratutako jendea eta laneko nazioarteko bidaiak direla eta.
- Erakundearen mugikortasunaren emisioak lana dela eta egindako nazioarteko bidaien ondorioz sortu dira, eta oso bestelakoak dira in itinere joan-etorrien praktika eredugarrien aldean (>% 75 oinez, bizikletaz edo garraiobide publikoan).

Egindako ekintzak

- Langileen % 75 bizikletaz, oinez edo garraiobide publikoetan etortzen dira lanera.
- Furgonetaz eta auto partekatuetan bidaiatzea lehenesten da hegazkinez bidaiatzearen aldean.
- Auto elektrikoak eskaintzen dira Ekitaldia egin bitartean gonbidatuak mugi daitezten.
- Erdietara baino gehiagotara murriztu dira aireportutik eta aireportura egindako bidaiak.




Grafikoa. Mugikortasunaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren azterna osoan.



Grafikoa. Akreditatuak garraiatzeko moduen emisioen ehunekoa 2019an.



Ondorioak




Zinemaldiak ondasun eta zerbitzuak hornitzen dizkieten enpresetan eragiten jarraitu behar du Zinemaldiaren dimentsio osoak jasangarritasunaren inguruko helburu partekatuekin bat egin dezan.

Erosketak


- Erosketen eta kontratazioen bolumena dela-eta ingurumen-inpaktu handia du arlo honek.
- Zinemaldiaren 9 egunetan haren beharrei erantzuteko kontratatutako lanbide-, zientzia- eta teknika-jardueren ondorioz gertatzen dira emisioen % 40. Zerbitzu horren adibide dira hauek: argiztapeneko laguntza teknikoa, laguntza-langileak, hesiak jartzea, eszenografia diseinatzea, mezularitza, azpituduak jartzea eta itzulpenak egitea.
- Zinemaldiak aurrekontuaren ehuneko handia bideratzen du Ekitaldiaren 9 egunetarako gai teknologikoak alokatzera (ordenagailuak, ekipamendua, walkie-talkieak eta proiektagailuak, besteak beste).

Egindako ekintzak

- Erakundeak kontratatu dituen enpresen % 16k ingurumen-ziurtagiria dute.
- Produktu askotan alokairua lehenesten da erosketaren gainetik; ohitura hori bat dator jasangarritasunarekin, eta inpaktu handiagoa egotea eragozten du.




Grafikoa. Erosketen emisioen ehunekoak 2019ko Zinemaldiaren azterna osoan.



Grafikoa. Kontratazio-bolumenaren ehunekoak, Erakundearen jardueraren arabera, 2019an.



Ondorioak




Zinemaldiak energia-kontsumo ia nulua (NZEK) lortzea jarri ahal du xede, kontsumoa gutxitzearen alde eginez, elektrizitate berriztagarriaren bidez eta energiaren erabilera arduratsua une oro eginez.

Energia


- Energia-kontsumoek sortutako emisioen ondoriozko ingurumen-inpaktua txikia da, baina badu, orobat, bere eragina ingurumenean.
- Emanaldi kopurua, zinema-aretoetako girotze-sistema edo ostatuak gorabehera, Zinemaldiak ez du oso energia-kontsumo handirik, eta inpaktu erlatiboa txikia da horren ondorioz.
- Beste batzuek sortzen dituzte energia-kontsumo gehienak, hau da, Ekitaldia egiteko alokatutako eremuak eta hotelek; hori horrela, txikia da kontsumoaren eta emisioen kantitateetan eragiteko ahalmena.
- Handia da energiaren gaineko mendekotasuna, eta horren erabilera arduratsua egin behar da horregatik

Egindako ekintzak

- Luminaria halogenoak LEDez ordeztzeko prozesua aurrera eramaten ari gara.
- Energia efizienteen sistemak hartzen ari gara kontratazioaren bitartez eta gailu elektronikoak erosiz.




Grafikoa. Energiaren emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren aztarna osoan.



Grafikoa. Ekitaldiko eraikinen energiaren emisioen ehunekoa 2019an.



Ondorioak




Paper, kartoi eta plastikoen tankerako hondakinen sorrera gutxitzearen alde egin behar du oraindik Zinemaldiak, eta materia organikoa kudeatu; horrez gain, hondakinen hierarkia aplikatu behar du Ekitaldiaren kudeaketa osoan eta Erakundearen egunerokoan.

Hondakinak


- Ur-kontsumoak eta hondakinek (batez ere papera eta kartoia, baita errefusa ere) ingurumen-inkaktu handia dakarte, sortutako hondakin kantitatea bezalako adierazleei begiratuz gero.
- Ekitaldian 4.852 kg hondakin sortzen dira; horietatik, % 9 berriz erabiltzen da, eta % 76, birziklatu egiten da.
- Sortutako hondakinen bolumenak karbono-aztarnaren kalkuluan islatuta ez dagoen ingurumen-inkaktu jartzen du agerian.

Egindako ekintzak

- Ekitaldiaren hondakinen % 76 eta Erakundearen hondakinen % 96 birziklatzen dira.
- Zinemaldia digitalizatzeko prozesu baten barruan murgilduta dago, eta paper-bolumen handiak ez dira inprimatzen dagoeneko horri esker. Zinemaldiaren bulegoetan erabilitako paper guzti-guztia paper birziklatua da.
- Sortu eta soberan gelditutako merchandisingaren % 90 berrerabili egiten da. Atal honetan adierazi behar dugu, halaber, ehunetan erabilitako kotoia % 100 organikoa dela.



Grafikoa. Hondakinen emisioen ehunekoa 2019ko Zinemaldiaren azterna osoan.



Grafikoa. 2019ko Ekitaldian hondakin motaren arabera sortutako hondakinen kg-en ehunekoa*.



Ondorioak

Konpromisoa

Zinemaldiaren ingurumen-inpaktua aztertzeko orduan bost arlo hartu dira kontuan, eta arlo horiek jarduera osoa hartzen dute barnean, bai Ekitaldiaren 9 egunetako jarduera, bai Erakundearen jarduera.

Sarrera

Diagnostia egiteko, datuak bildu eta inkestak eta elkarrizketak egiteaz gain, lan-jardunaldiak ere egin ditugu Erakunde eta Ekitaldiaren zuzendari, langile eta ondasun-eta zerbitzu-hornitzaileekin.

Agiri honetan diagnosiaren gakoak ikus daitezke, laburpen modura; karbono-aztarna eta ingurumen-azterketaren xehetasunak, berriz, dagokien txostenetan daude ikusgai.

Azterketa bereziak egin ditugu Ekitaldi eta Erakunderako, era horretan oso magnitude ezberdinak irudikatzeko, hau da: Zinemaldiaren bederatzi egunetan bildutako 180.000 ikusleak, eta urte osoan zehar aritzen diren 50 langileak.

Ekitaldia 5.110 tCO₂

9 egun
180.000 ikusle
Kanpoko eragin handia



Inpaktu erlatibo **handia**
Ekiteko ahalmen **mugatua**
Ahalmen **eredugarri** handia

Erakundea 285 tCO₂


365 egun
50 langile
Barneko lana



Inpaktu erlatibo **txikia**
Ekiteko ahalmen **handia**
Kontzientzia korporatiboa



Ondorioak



Zinemaldiak jasangarritasunarekin konprometitutako ekitaldi bezala duen posizionamendua hobetu eta horretaz baliatu beharra du nazioartean eragile aitortu bihurtzeko.

Konpromisoa

Zinemaldiak ahalmen oso handia du jasangarritasunarekin konprometituko ekitaldi gisa agertzeko eta eragile aitortu bihurtzeko.


Zinemaldiak Ekitaldian islatu duen konpromisoak are anbizio handiagoa behar du nazioarteko gaur egungo jasangarritasun-estandarrekin bat egin dezan; Erakundeak kudeaketa arduratsuagoa erakusten du, ordea.

Konpromisoa da Zinemaldiaren jarduteko ahalmenik handiena; izan ere, jasangarritasunak eta ingurumena errespetatzeak berarekin dakartzaten aukerak erakusteko eta arlo horren munduko eredu izateko pribilegioa du.


Egindako ekintzak

- Ingurumen-diagnosi xehatua egin da ingurumen-ikuskapen gisa, eta langileak, bazkideak eta hornitzaileak hartu dira kontuan.
- Bi prestakuntza-jardunaldi egin dira Zinemaldiako barneko langileekin.
- Ekintza Plan batean Zinemaldiaren jasangarritasunaren arloko konpromisoak eta anbizioak (heldu diren 10 urteetarako) bildu dira.

Garrantzitsua al da Zinemaldiak jasangarritasunaren aldeko apustua egitea?



Jasangarria al zara zure egunerokotasunean?





Ondorioak

Laburpena

- Zinemaldiak **jasangarritasunarekin konprometitutako ekitaldi bezalako posizionamendua lortu** behar du, eta nazioartean aitortutako eragile bihurtu.
- Paper, kartoi eta plastikoen tankerako **hondakinen sorrera gutxitzearen** alde egin behar du Zinemaldiak, hondakinen hierarkia Ekitaldiaren kudeaketa osoan eta Erakundearen egunerokoan aplikatuz.
- Zinemaldiak ondasun eta zerbitzuak hornitzen dizkioten **enpresetan eragiten** saiatu behar du Zinemaldiaren dimentsio osoak jasangarritasunaren inguruko helburu partekatuekin bat egin dezan.
- Zinemaldiak **mugikortasunean eragin** behar du, sortzen dituen emisioen kantitatea dela kausa-, eta, jarduteko ahalmen handirik ez badu ere, joan-etorriak jasangarriak edo konpentsatuak izatea sustatu behar du.
- Zinemaldiak energia-kontsumo ia nulua (NZEC) lortzea jarri behar du xede, kontsumoa gutxitzearen alde eginez, elektrizitate berriztagarriaren bidez eta energiaren erabilera arduratsua une oro eginez.